

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia ondorengo webgunea sortzea da:

- Pertsona batek motoan istripu bat edukiz gero, kaskoak QR kodea duen pegatina bat edukiko luke.
- Webgune honekin, laguntzera doan pertsonak QR kodea eskaneatu eta pertsonaren honako ezaugarri hauek jasoko lituzke; istripua jasan duenaren izen-abizenak, alergiarik baduen ala ez, gaixotasunak, odolaren ezaugarriak, DNla eta bere zuzeneko kontaktuak (gurasoak edo dena delakoa)...

Hori dela eta, honen bidez, gizarteari ondorengo onura hauek ekar diezazkiokegu:

- Hospitaleei edota medikuei lana erraztea, eskaintako azkartasunaren bidez.
- Bizitzak salbatzea.
- Familiarekin erraz kontaktuan jartzea.
- Zerbitzu honek, kaskoen lapurketen murrizketan lagunduko luke. Azken finean, bere kaskoa lokalizatua edukiko lukeelako.